
pilates y estiramientos y se abordan, con la participación de enfermeras del consultorio médico, temas relacionados con la salud y el ejercicio físico. Por otro lado, se han organizado nuevas salidas de marcha nórdica en las que se enseñará la técnica de los bastones.

Ibilaldi osasungarriak
Ateraldia: 10:00

- Osasun kontsultategia**
 - **Apirilak 3:** elikadura eta ohitura osasungarriak
 - **Maiatzak 8:** osteoporosia eta ariketaren garrantzia
 - **Ekainak 5:** Zeinu Hizkuntzaren Egun Nazionala
 - **Uztailak 3:** tabakoa, arnas gaixotasunak

Paseos saludables
Salida 10:00

- Consultorio médico**
 - **3 de abril:** alimentación y hábitos saludables
 - **8 de mayo:** osteoporosis y la importancia del ejercicio
 - **5 de junio:** Día nacional de la Lengua de Signos
 - **3 de julio:** tabaco enfermedades respiratorias

Martxa nordikoa
Izen-ematea: 012

- Ateraldia: 10:00,**
Artikako Kirol Hiria
 - **Apirilak 26:** emazu izena 15etik 21era
 - **Maiatzak 17:** emazu izena 5etik 12ra
 - **Ekainak 14:** emazu izena 3tik 9ra

Marcha nórdica
Inscripciones 012

- Salida: 10:00, Ciudad Deportiva de Artica**
 - **26 de abril:** inscíbete del 15 al 21
 - **17 de mayo:** inscíbete del 5 al 12
 - **14 de junio:** inscíbete del 3 al 9

CAMPAMENTO JUVENIL / GAZTE KANPALDIA



¡Vamos a “conquistar” la Cendea!

Si tienes entre 12 y 16 años, te gusta la naturaleza y la aventura y quieres vivir una experiencia inolvidable, apúntate al campamento juvenil “El conquistador de la Cendea”. Será **del 29 de junio al 3 de julio** y consistirá en completar andando una vuelta circular que discurrirá por todos los concejos de la Cendea. La iniciativa, promovida por el Servicio de Deporte y Juventud, pretende impulsar el conocimiento de nuestros pueblos y de la Cendea entre los y las jóvenes.

Las actividades estarán inspiradas en el popular programa de televisión “El Conquistador”, con gymkanas y pruebas físicas. Además, todos los días por la mañana los participantes deberán recorrer a pie las pistas y senderos de la zona para desplazarse entre concejos. En total, una media de 8-12 km al día. El itinerario propuesto también incluye la subida al Fuerte de San Cristóbal, la balsa de Loza, el camino del Plazaola y visitas a Rocópolis (pruebas tirolina) y piscinas de Berrioplano.

Zendea konkista dezagun!

Información práctica

El campamento cuesta 66,51 euros e incluye pensión completa, almuerzo, un lugar para dormir, camioneta para llevar la mochila pesada, actividades, seguro de responsabilidad civil y asistencia médica. Las pernoctaciones serán en casas concejiles y frontones y los/as participantes dormirán en esterillas y sacos. Además,

irán acompañados de monitores.

Las personas que decidan apuntarse deberán llevar ropa deportiva, enseres personales, saco y esterilla, dos mochila (una pequeña para la mañana), botellín de agua, crema solar y gorra, bañador, toalla y chanclas.

El número máximo de participantes es 20 (tendrán prioridad las personas empadronadas). Las inscripciones serán del 20 al 28

de abril a través del 012. El 15 de junio se llevará a cabo una reunión informativa con padres y madres junto con la empresa gestora para resolver dudas. Será a las 17:30 en las salas del Edificio Multiusos de Berrioplano.

¡Ven y participa!

Inscripciones: 20-28 de abril en el 012

Precio: 66,51 euros

Reunión informativa con familias:

15 de junio a las 17:30 en el Edificio

Multiusos de Berrioplano

Máximo de participantes: 20

12 eta 16 urte artekoa bazara, naturazalea eta abenturazalea bazara, eta esperientzia zoragarria bizi nahi baduzu, emazu izena “El conquistador de la Cendea” gazte kanpaldian. Ekainaren 29tik uztailaren 3ra egingen da. Zehazki, ibilaldi zirkular bat izanen da, Zendeako herri guztiak zeharkatuko dituen. Kirol eta Gazteria Zerbitzuak sustaturik, ekimenaren helburua da gazteek gure herriak eta zendea bera ezagutzera.

Jarduerak “El Conquistador” izeneko telebista saio ezagunean oinarriturik daude: badira ginkanak eta proba fisikoak. Gainera, egunero, goizean, parte-hartzaileek oinez zeharkatu beharko dituzte inguru honetako pistak eta bidexkak, herriz herri joateko. Guztira, bana beste, 8-12 km eguneko. Proposatu den ibilaldiaren barnean ere honako toki hauek sartu dira: Ezkaba mendiko igoera gotorlekuraino iristeko, Lotzako aintzira, Plazaolako bidea, Rocópolis (tirolina probak) eta Berriobeitiko argilekuak.

Informazio praktikoa

Kanpaldiaren kostua 66,51 euro da, eta hau guztia dago barne: mantenu osoa, hamaiketakoa, lo egiteko leku bat, motxila astuna eramateko kamioneta bat, jarduerak, erantzukizun zibileko aseguru eta osasun laguntza. Parte-hartzaileek kontzeju etxeetan eta pilotalekuetan lo egingen dute, esterilla eta zakuetan, betiere.

Monitoreek lagundurik joanen dira.

Izena ematen dutenek kirol arropa, norberaren gauzak, lozakua, esterilla, bi motxila (txiki bat, goizerako), ur botilatxoa, eguzki krema, txanoa, bainujantzia, eskuoihala eta txankletak eraman beharko dituzte.

Parte-hartzaileak, gehienez, 20 dira (errol-datuek lehentasuna izanen dute). Izena apirilaren 20tik 28ra bitarte eman beharko da, 012ren bidez. Ekainaren 15ean, argibideak

emateko bilera egingen da gurasoekin, enpresa kudeatzailearekin batera, zalantzak argitzeko. 17:30ean izanen da, Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikinetako geletan.

Zatoz eta parte hartu!

Izen-ematea: apirilak 20-28, 012an

Prezioa: 66,51 euro

Informazio bilera familekin: ekainak 15, 17:30, Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikinean

Parte-hartzaileak, gehienez: 20



MARZO 2020 / 2020 MARTXOA 12 BERRIOPALNO INFORMAZIOA / BERRIOBEITIKO AHOTSA

Udalak Berriobeitiko I. Gazteria Plana onetsi du. Plana taxutzeko, aurrez diagnosia egin da, 2018an hasia eta 2019ko irailean bukatua, Berriobeiti Zendea bizi diren gazteek zer behar eta eskari dituzten jakiteko.

El Ayuntamiento ha aprobado el I Plan de Juventud de Berrioplano. Para llevar a cabo este Plan, ha realizado previamente un diagnóstico, iniciado en 2018 y concluido en septiembre de 2019, que ha tenido como objetivo conocer las necesidades y demandas de la juventud residente en la Cendea de Berrioplano.

Gazteriaren beharrei erantzuteko

Atender las necesidades de la juventud

Lanaren emaitza Berriobeitiko Gazteriaren I. Plana izan da (2020-2022). Orain arte atera diren ondorioak eta egindako solasaldiak oinarri harturik, Udalak Berriobeiti Zendeako gazteen aldeko politikak sustatu eta eginen ditu, hemendik aurrera.

Hala diagnosiak nola Berriobeitiko Gazteriaren 2020-2022ko I. Planak Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jaso dute. Bestalde, diagnosiaren lehen fasean eta Berriobeitiko

El fruto de este trabajo se ha materializado en el I Plan de Juventud de Berrioplano (2020-2022). Las conclusiones y diálogos alcanzados servirán como base de las futuras intervenciones dirigidas a favorecer y dinamizar el compromiso municipal con la juventud de la Cendea de Berrioplano.

Tanto el proceso de diagnóstico como la elaboración del I Plan de Juventud de Berrioplano (2020-2022) han contado con la

**BECAS COMEDOR /
JANTOKI BEKAK**



Gazteriaren 2020-2022ko I. Planaren idazketan, Euala Inicativas aholkularitza enpresaren laguntza teknikoa jaso da. Planak hainbat helburu eta ekintza zehaztu ditu hainbat arlotan, hala nola kulturalan, etxebizitzan, hezkuntzan, enpleguan, kirolean, partaidetzan, bizikidetzan, gizarteratzean, dibertsitatean, berdintasunean, eta lurraldearen garapenean. Gainera, zeharkako hiru ardatz ditu oinarri: genero-berdintasuna, gizarteratzea eta euskara.



Metodologia

Berriobeiti Zendeako gazteria arloko diagnosia egiteko eta plana diseinatzeko, honako tresna hauek erabili dira metodologiari dagokionez: bigarren mailako iturriak aztertu dira, gazteen gizarte eta demografiaz arloko ezaugarrien argazki bat eskuratzeko; elkarrizketa sakonak funtsezko informazio-emaileei, hala nola udal teknikariei, gizarte zerbitzuei eta gazte elkar-teei; tailer parte-hartzaileak gazteekin; on-line galdetegi bat, gazte guztien iritzia eta beharrak jasotzeko; kontzejuen fitxak, gazteriarekin zer jarduketa ildo landu behar diren jakiteko; eta lan talde bat politikariek nahiz teknikariek.



Gaztegunea, Berriobeitiko gazteendako gunea

Udaleko Gazteria Zerbitzuak abian jarritako ekimenen artean, Gaztegunea dago, hau da, gazteen artean aisia osasungarria eta bizikidetzaz sustatzeko zerbitzua. Doakoa da eta Artikan eskaintzen da asteburuetan, gazteen interesekoak diren tailerrak eta jarduerak antolatzen. Gaztegunea Artigune IIIan (Artika Berri) ematen da, ostiraletan, 18:30etik 21:00etara eta, larunbatetan, 17:30etik 21:00etara.

financiación del Gobierno de Navarra. La primera fase del diagnóstico fue realizada por Nommad microcooperativa. Por otro lado, la segunda fase del diagnóstico y la redacción del I Plan de Juventud de Berrioplano (2020-2022) ha contado con la asistencia técnica de la consultoría Euala Inicativas.

El Plan aborda distintos objetivos y acciones en materia de cultura, vivienda, educación, empleo, deporte, participación, convivencia, inclusión social y diversidad, igualdad y desarrollo del territorio. Además, gira en torno a tres ejes transversales: igualdad de género, inclusión y euskera.

Metodología

Para llevar a cabo el desarrollo del diagnóstico de juventud, así como para el diseño del Plan de Juventud de la Cendea de Berrioplano se han utilizado las siguientes herramientas metodológicas: análisis de fuentes secundarias para obtener una fotografía de las características sociodemográficas de la población joven; entrevistas en profundidad a informantes clave como técnicos del ayuntamiento, servicios sociales y asociación juvenil; talleres participativos con población joven, un cuestionario on-line para recoger la opinión y necesidades del total de la población joven; fichas de concejos para detectar las líneas de actuación de los concejos con la juventud; y un grupo de trabajo con personal político y técnico.

Gaztegunea, un espacio para los y las jóvenes de Berrioplano

Una de las iniciativas que ha puesto en marcha el Servicio de Juventud del Ayuntamiento para promover el ocio sano y la convivencia juvenil es el Espacio Joven- Gaztegunea. Un espacio gratuito que se oferta en Artica durante los fines de semana y en el que se organizan talleres y dinámicas que interesan a los y las jóvenes.

El Espacio Joven se desarrolla en Artigune III (Artica Nuevo), los viernes de 18:30 a 21:00 y los sábados de 17:30 a 21:00.

Las solicitudes para las becas comedor, en la segunda quincena de junio.

Las personas interesadas en conseguir una beca comedor para el curso 2020-2021 deberán presentar su solicitud cumplimentada en la Mancomunidad de Servicios Sociales de Base (Kaleberri, 12 de Berriozar) durante la segunda quincena de junio de 2020. Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

- La solicitud cumplimentada y ajustada al modelo normalizado que se facilitará por la Mancomunidad de Servicios Sociales de Base.
- Copia de la declaración de la renta del año anterior (2019) de toda la unidad familiar.
- Convenio regulador o sentencia de separación o divorcio.
- Certificado de discapacidad en caso de que exista algún miembro de la unidad familiar con reconocimiento de discapacidad igual o superior al 33%.

Jantoki bekatarako eskaerak ekainaren bigarren hamabostaldian.

Jantoki beka 2020-2021 ikasturterako eskuratu nahi dutenek eskabide idatzia aurkeztu beharko dute Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen

Mankomunitatean (Kaleberri, 12. Berriozar), 2020ko ekainaren bigarren hamabostaldian.

Eskaerekin batera, **agiri** hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskabidea ongi bete, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak emanen duen eredu normalizatuarekin bat.
- Aurreko urteko errenta aitorenaren kopia (2019), familia-unitate osoa kontuan harturik.
- Bereizketa edo dibortzioari buruzko epaia edo hitzarmen arautzailea.
- Desgaitasun ziurtagiria, baldin eta familia-unitateko inork % 33ko edo hortik gorako desgaitasun aitortua badu.

IOSU HUARTE, LUR GIL

ELKARTEKO BI BIZILAGUN BERRIOZARKO SOKATIRA KLUBEAN
VECINOS DE ELKARTE DEL CLUB DE SOKATIRA DE BERRIOZAR



Herriko biztanlerik gazteenetako bi Berriozarko sokatira klubeko kide dira eta, lehiaketan -hurrenez hurren- hiru eta bi urte bakarrik badaramatzate ere, ederki dakite zer den munduko txapelketan parte hartzea.

Dos de sus vecinos más jóvenes forman parte del club de sokatira de Berriozar y, aunque solo llevan tres y dos años respectivamente en la competición, ya saben lo que es participar en un Mundial

Elkartean indarrez “tiratzen” dute

En Elcarte “tiran” con fuerza

Hilabetea ere ez da pasatu Iosu Huarte eta Lur Gil Irlandatik itzuli zirenetik, baina entrenamenduetara itzultzea inoiz baino gozoagoa izaten ari da. Munduko Sokatira Txapelketan aritu ziren, otsailaren 20tik 23ra, Irlandako Letterkenny herrian, Donegaleko Konderrian, eta merezimendu osoko laugarren postua lortu zuten klubentzat. “Poz-pozik gaude emaitzarekin, txapelketako maila handia zelako, duela bi urteko

No ha pasado ni un mes desde que Iosu Huarte y Lur Gil regresaron de Irlanda, pero la vuelta a los entrenamientos está siendo más dulce que nunca. Competieron en el Mundial de Sokatira que se celebró del 20 al 23 de febrero en la localidad irlandesa de Letterkenny, en el condado de Donegal, y lograron un meritorio cuarto puesto en la categoría de clubes. “Estamos muy contentos con el resultado porque

Txinakoa baina handiagoa. Taiwandarrak garaiezinak dira, arras talde trinkoa osatzen baitute, eta lehen postuetan, irlandarrak, eskoziarrak eta holandarrak ibiltzen dira beti. Gainera, ezustekoa izan zen; izan ere, gogotik prestatu baginen ere, losu alditxartu zen eta ni erdi lesionaturik nengil”, esan digu Lurrek. Laugarren postuaren gako prestaketan datza. Irlandara joan aurretik, astean bospasei egunez aritu ziren entrenatzen –zenbaitetan, goizez eta arratsalde–, eta astean hirutan, Berriozarrera joaten ziren talde osoarekin batera sokatira egiteko. Sokarekin entrenatzeko, txirrika bat erabiltzen dute, eta hainbat pisu eransten joaten dira.

Teknika, garrantzitsuena

Iduri duenaz bestela, sokatiran ez da onena indartsuen tira egiten duena, teknika menderatzen duena baizik. “Behar den postura hori lortzea izaten da zailena. Beste edozein kiroletan bezala, sokatirak bere teknika dauka. Sokari ongi heldu behar zaio saihesten eta aldakaren artean, eta gorputzarekin indar handiagoa egin. Besoekin indar handia egiten baduzu, lehenago nekatu, bizkarra kargatu eta lesionatu zaitezke. Horregatik, adin handieneko sokatiralariak tiratzen dute hobekien, urteen joan-etorrian teknika eskuratu baitute eta badakite postura zuzena hartzen hobeki tiratzeko”, adierazi du losu.

Txikitatik, losu eta Lur denetariko herri kiroletan aritu dira, baina azkenean, sokatiraren alde egin zuten, goi mailako lehiaketak daudelako. “Sokatira oso gogorra da. Jarraitzea da nekosoena. Jende asko etortzen da urtebetez probatzera, baina utzi egiten dute”. Sakrifizio handia badakar ere, poz asko eta handiak ere ekartzen ditu. Talde-kirola denez, ordu asko egoten dira taldekideekin, eta giroa izugarria da; orain koadrila dira, elkarrekin poteatu eta afaltzera joateko. Talde bakoitzak zortzi sokatiralari ohi ditu, baina lau lehiaketak ere badira. Denboraldia urrian hasten da, Nafarroako eta EAeko txapelketak jokatzen baitira, eta bi urtez behin, munduko txapelketa egiten da.

Finalean egotearen ametsa

Irlandako txapelketaren inguruan gehien hunkitu dituen gauzetako bat giro handia izan da. “Jendeak asko animatzen zuen eta taldeengandik oso hurbil zegoen. Tirada bakoitzak minutu eta erditik hiru minutura iraun ohi du, baina batzuek bost ere irauten dute. Nekatua zaudenean, jendearen animoek arras motibatzen zaituzte”. Finala beste une goren horietako bat izaten da. “Hasi baino lehen, argiak itzali, musika piztu, goraino igo, eta taldekideen izenak banan-banan aipatzen dituzte. Izugarri gustatuko litzaiguke une hori bizitzea”. Amets hori, oraingoz, etorkizunerako utzi beharko dute. Hurrengo helburua Nafarroako Txapelketa da, eta ahalik eta goren iristen saiatuko dira. Azken txapelketan, bigarren izan ziren. Beharbada, iritsi da goia jotzeko tenorea!

en este Mundial había mucho nivel, más que en el de China de hace dos años. Los taiwaneses son intratables porque forman un equipo muy compacto y en los primeros puestos siempre están los irlandeses, escoceses y holandeses. Además, fue inesperado porque, aunque nos habíamos preparado mucho, losu se puso malo y yo estaba medio lesionado”, comenta Lur.

La clave de este cuarto puesto está en la preparación. Antes de desplazarse a Irlanda, estuvieron entrenando entre cinco y seis días semanalmente -a veces mañana y tarde, y tres días por semana acudían a Berriozarra para practicar sokatira con todo el equipo. Para entrenar con la cuerda, utilizan una polea a la que van añadiendo distintos pesos.

La técnica, lo más importante

Al contrario de lo que pueda parecer, en sokatira no es mejor quien tira más fuerte sino quien domina la técnica. “Lo más difícil es conseguir la postura adecuada. Como cualquier otro deporte, la sokatira tiene una técnica. Hay que sujetar bien la cuerda entre las costillas y la cadera y hacer más fuerza con el cuerpo. Si haces mucha fuerza con los brazos, te cansas antes y puedes cargar la espalda, lesionándote. Por eso la gente con más edad es la que mejor tira, porque ha adquirido la técnica con los años y sabe adoptar la postura correcta para tirar mejor”, apunta losu.

Desde pequeños losu y Lur han practicado todo tipo de deporte rural, pero se decantaron por la sokatira porque había competiciones de alto nivel. “La sokatira es muy dura. Lo que más cuesta es seguir. Mucha gente viene un año a probar y luego lo deja”. Pese al sacrificio que conlleva, también aporta muchas satisfacciones. Al ser un deporte de equipo, comparten muchas horas con sus compañeros y el ambiente es excepcional, se han convertido en una cuadrilla con la que también salen a cenar y a potear. Normalmente, cada equipo está formado por ocho tiradores, aunque hay competiciones de cuatro. La temporada empieza en octubre con los campeonatos de Navarra y de Euskadi y cada dos años se celebra el Mundial.

El sueño de estar en la final

Uno de los aspectos del campeonato irlandés que más les ha impresionado ha sido su gran ambiente. “La gente animaba mucho y se ponía muy cerca de los equipos. Normalmente, cada tirada dura entre un minuto y medio y tres, pero hay algunas de hasta cinco. Cuando estás cansado, motiva mucho que te den ánimos”. Otro momento estelar suele ser la final. “Antes de comenzar, apagan las luces, ponen la música a todo volumen y van nombrando uno a uno a los miembros del equipo. Nos encantaría vivirlo”.

Un sueño que, por ahora, tendrán que dejar para más adelante. Su próximo objetivo es el Campeonato de Navarra, donde intentarán llegar a lo más alto. En el último torneo, fueron segundos. ¡Quizás sea el momento de subirse a lo más alto del podio!



Sokatiran, ez da hobe indartsuen tira egiten duena, teknika menderatzen duena baizik

En sokatira, no es mejor quien tira más fuerte, sino quien domina la técnica

INAUTERIAK / CARNAVAL

Las series y el cine se
cuelan en el CarnavalTelesailak eta zinema
Inauterietako gaien
artean

Como en años anteriores, Txolin, zanpanzar y los gaiteros de la comparsa de Berriozar fueron los encargados de inaugurar los Carnavales con su tradicional kalejira por las calles de Artica. Lo hicieron el viernes 21 de febrero y, dos días más tarde, Berrioplano tomó el relevo con la obra de teatro “El estraperlo en la Cendea”.

Aurreko urteetan bezala, Txolinek, joaldunek eta Berriozarko konpartsako gaiteroek hasiera eman zioten inauteari, ohiko karrikadantzan, Artikako kaleetan barna. Otsailaren 21ean izan zen eta, handik bi egunera, Berriobeitin, “El estraperlo en la Cendea” antzezlanaren eman zen. Hasierako ekitaldien ondotik, inaute egun nagusia otsailaren



Tras este pequeño aperitivo llegó el gran día, el sábado 29 de febrero. Este año grandes estrellas del cine y de las series se acercaron hasta Berrioplano para vivir de lleno la fiesta, entre ellos, algunos de los personajes más representativos de “Star Wars”, el equipo al completo de “La Casa de Papel” o algún que otro esbirro de Al Capone. En total, 460 personas participaron en la comida de Carnaval, que dio paso a una animada verbena con “Los Andus”. Los más animados bailaron a ritmo de DJ INO hasta la madrugada.

20an ospatu zen, larunbatarekin. Aurten, nonahi ikusi dira Berriobeitin film eta telesailetakoz izar ospetsuak, festa giro ederrean; besteak beste, “Star Wars” sortako pertsonaiarik adierazgarrienak, “La Casa de Papel”-eko jende guztia edota Al Caponeren morroi gaiztoaren bat edo beste. Guztira, 460 lagun inauterietako bazkari jendetsuan bildurik eta, ondotik, sekulako dantza giroa, “Los Andus” taldearekin. Nekagaitzenek ordu txikiak arte iraun zuten dantzan, INO DJ-aren arrimuan.

JAIALDIA / FESTIVAL



Gabon jotaren I. jaialdiaren arrakasta.

Kultur Etxeko gune eszenikoa mukurru bete zen joan den abenduaren 27an, Eguberrietako jota jaialdia gozatzeko. Hainbat jota eskola aritu ziren, hala nola Castejongoa, Pitillaskoa, Tuterako Camino Martínez, Uharteko Amigos de la Jota eta Brotes de Encina taldea.

Éxito del I Festival de Jota villancico.

El espacio escénico de la Casa de Cultura se llenó el pasado 27 de diciembre para disfrutar de este festival navideño de jotas, que contó con las actuaciones de las escuelas de jotas de Castejón, Pitillas, Camino Martínez de Tudela, Amigos de la Jota de Huarte y Grupo Brotes de Encina.

CONCIERTO / KONTZERTUA

Jazz de la mano de Ache pa ti.

El grupo Ache pa ti ofrecerá un concierto de jazz de gran originalidad el 28 de marzo en la Casa de Cultura María de Maeztu. La cita a las 20:00. Este quinteto de jazz latino realiza sus versiones con toques afrocubanos y arreglos que ponen de manifiesto sus raíces en el folklore vasco, así como su gusto por el latin jazz. Además, su nombre "Ache pa ti" hace referencia a una expresión utilizada en la santería cubana con la que transmite suerte y buenos deseos. Y éste es el espíritu que mueve a estos músicos en sus conciertos.



Jazza, Ache pa ti-ren eskutik.


Ache pa ti taldeak jazz kontzertu arras bitxia emanen du martxoaren 28an, María de Maeztu Kultur Etxean, 20:00etatik aitzina.

Jazz latinoan lantzen duen boskote honek ukitu afro-kubatarrekin ontzen ditu bere bertsioak, eta moldaketa guztietan ere nabaria da sustraia euskal folklorea erroturik dituztela eta latin jazz gustukoa dutela.

Gainera, "Ache pa ti" esamoldea Kubako santerian erabiltzen da,

zoriona eta onena opatzeko. Eta espiritu horrek berak eraginik ari dira musikariok kontzertuetan.

HAUR IKUSKIZUNA / ESPECTÁCULO INFANTIL



Irudimenaren indarra. Producciones Maestras-ek "¡Estás en Babia!" haur ikuskizuna taularatu du apirilaren 26an, María de Maeztu Kultur Etxean; irudimenaren aldeko aldarria da, gutxien gustatzen zaigun errealitatea eraldatzeko daukagun gaitasunaren aldekoa. Antzezlanak 50 minutu dirau eta 18:00etan antzeztuko da.

Haurrek handizki pentsa dezatela helburu hartuta, Producciones Maestras-en lanak barne mundu bat birsortu nahi du, berezko mundu bat, eraldakuntza etengabea ari den mundu bat.

El poder de la imaginación. Producciones Maestras presentará el 26 de abril en la Casa de Cultura María de Maeztu el espectáculo infantil "¡Estás en Babia!", un canto a la imaginación, a nuestra capacidad de transformar la realidad que menos nos gusta. La obra, de

50 minutos de duración, se representará a las 18:00. Con el objetivo de que los/as pequeños piensen en grande, la obra de Producciones Maestras busca recrear un mundo interior, un mundo propio, un mundo en constante transformación.

CONCIERTO / KONTZERTUA

Llega a Artica "Luces, música iacción!" La Casa de Cultura María de Maeztu acogerá el domingo 10 de mayo a las 18:00 el espectáculo del grupo Suakai "Luces, música, iacción!", o lo que es lo mismo, la emoción del cine trasladada a teatros y auditorios. Esta vez, con la banda sonora original en directo a través de la técnica del sonido envolvente. En los 75 minutos que dura el espectáculo, se podrá vivir un viaje sin pausa a través de las bandas sonoras más relevantes y atractivas de la historia del cine. Todas ellas acompañadas de imágenes de las películas milimétricamente sincronizadas, tal como ocurre en la gran pantalla. Una producción única, de gran calidad, que acerca dos de las grandes pasiones del público, el cine y las bandas sonoras. Apto y recomendado para todos los públicos, el espectáculo se crea con la intención de dirigirse a espectadores/as de muy diferentes edades. Se busca que jóvenes o niños/as puedan disfrutar tanto como los padres/madres o familiares que les acompañan.



Artikan, sarri, "Luces, música iacción!" Suakai taldeak "Luces, música, iacción!" ikuskizuna emanen du maiatzaren 10ean, igandea, María de Maeztu Kultur Etxean, 18:00etan hasita. Bestela esanik, zinemari darion zirrara antzoki eta auditorioetara ekarria. Oraingo honetan, jatorrizko soinu-banda zuzenean, soinu ingurutzailaren teknika bitartez. Ikuskizunak dirauen 75 minutuetan, pausaldirik gabeko bidaia bizitzeko parada izanen dugu, zinemako historian izaniko soinu-bandarik garrantzitsuen eta erakargarrien bidez. Guztiak ere, filmetako irudiek lagundurik, milimetrikoki sinkronizatuak, pantaila handian gertatzen den bezalaxe. Horra kalitate handiko ikuskizun paregabea, jendearen bi zaletasun handietako bi entzuleenganaino hurbiltzeko: zinema eta soinu-bandak.

Jende guztiarendako egokia eta gomendagarria. Ikuskizuna adin honetako eta hartako ikusleentzat sortu da. Hau da, xedea da haurrek eta gazteek ederki gozatzea, bai eta haiekin joan diren gurasoek eta senideek ere.

PATRIMONIO ARTÍSTICO / ONDARE ARTISTIKOA



Palacio de Ansaldo (Aizoáin)

Este palacio del siglo XVI destaca entre la arquitectura civil de Aizoáin. Está situado junto a la iglesia y seguramente ocupa el lugar del antiguo palacio de Cabo de Armería, aunque las armas que hoy se exhiben no coinciden con las que da el Libro de Armería para el palacio de Aizoáin. Posee una gran fachada principal de cuatro niveles flanqueada por dos grandes torreones, en uno de los cuales se abre una ventana geminada de arquillos apuntados. La fachada presenta un gran portalón adintelado y varias ventanas dispuestas de forma irregular. Sobre la puerta figura un escudo barroco acuartelado con las armas de la familia Ansaldo, las mismas armas que el escudo de la capilla funeraria de los Ansaldo en la parroquia: en el primer cuarto, panela y concha; segundo, cortado con dos estrellas y tres barras; tercero, cortado con dos lobos y tres jabalíes; y cuarto, tres fajas.

Ederki nabarmentzen da XVI. mendeko jauregi hau Aitzoaingo eraikin zibilen artean. Eliza ondoan dago eta, ziurrenera, aurretik, toki horretan bertan, Leinu Etxea egon zen; dena den, gaur egun agertzen dituen armarrak ez datoz bat Armarrí Liburuan Aitzoaingo jauregiarentzat ageri direnekin. Fatxada nagusia handia da zinez, lau mailakoa, alde banatan bi dorre handi dituela. Dorreetako batean, arku txiki zorrotzez osaturiko leiho biki bat dago. Aurrealdean, atari handi bat dago, eta hainbat leiho, irregulartasunez antolatua. Ate gainean, armarrí barroko kuartelatu



bat dago; zehazki, Ansaldo familiaren armarríak dira, hau da, Ansaldo familiak elizan daukan hiletakaperan dagoen armarríko berberak. Hona hemen: lehen atalean, panela eta maskorra; bigarrena, bi izarrekin eta hiru barrarekin moztua dago; hirugarrenean, bi

otsorekin eta hiru basurderekin moztua; eta laugarrenean, hiru zerrenda.

Ansaldo jauregia (Antsoain)

EL RASTRO DEL EUSKERA EN LA CENDEA
EUSKARAREN AZTARNA GURE ZENDEAN

CASAS / ETXEAK



Makaiarena BERRIOGOITI

Izenak esan nahi du etxea Makaia izeneko batena edo Makaia herriko batena dela. Etxe puska ikusgarria da, hiru solairukoa (behekoa, nagusia eta sabaia). Teilatua, berriz, lau isurialdekoa. Harri-hormak ditu, baina sendotua dago izkinetan nahiz leiho-baoetan. Fatxada nagusian atearen gaineko arku handia da nabarmentzekoa, harriz egina.

Makaiarena BERRIOSUSO

El nombre de esta casa significa en euskera “la de Makaia”. Es una imponente construcción con tejado a cuatro aguas y tres plantas: baja, principal y desván. Los muros son de mampostería, reforzada en las esquinas y en los huecos de ventana. En la fachada principal destaca el gran arco de de piedra sobre la puerta principal.

ASÍ HABLAMOS / GURE MINTZOA

“Zirikiar”: Herri guztietan erabiltzen zen. Zirikatu, xaxatu, esan nahi du. Euskarazko *zirikatu* hitzetik heldu da.


“Zirikiar”: Se utilizaba en todos los pueblos. Significa molestar, importunar (del euskera *zirikatu*: tentar, provocar, incitar).

Fuente: *El euskera en el habla cotidiana de la Cendea de Berrioplano*

Iturria: *Euskara Berriobeiti zendeako eguneroko hizkeran. Berriobeitiko Udala*

FAUNA ERBI ARRUNTA

Martxo honetan, berriz ere ikusi da erbi arrunta Lotza inguruan eta bi ugaztun lagomorfo atzeman dira. Lotzako aintziraren eta Itza herriaren artean dago erbi horren habitatik arruntena. Dena den, hona ekarri dugun argazkia aintzira barnean atera da.



Erbiak belarri handiak ditu, bukaeran beltzak, untxienak baino handiagoak. Erbiak, gainera, tamainaz ere puskaz handiagoak dira; beraz, aise bereiziko ditugu. Atzeko hankak untxienak baino aunitzez ere gihartsuagoak eta handiagoak dira eta, horregatik, lasterrago joaten dira.

Erbi arrunta puskaz handiagoa da iberiarra baino. Nafarroan, erdialde eta iparralde guztian bizi da. Ez dute lurpeko zulorik egiten, hau da, geldirik gelditzen dira, belarriak atzerantz, lurzoruarekin kamuflatuta; beraz, zaila da egiazki atzematea. Gaueko ohiturak dituzte eta lasterkari bikainak dira. Oro har, bakarlariak dira baina, zenbaitetan, elikadura eremuetan biltzen dira; hau da, batzuk zelatan daude, bazterrei begira, harrapariak ez etortzeko, eta besteek, berriz, jan egiten dute.

Testua: Ignacio Deán (Gorosti Natur Zientzi Elkarte) **Argazkia:** Gonzalo Deán

LIEBRE EUROPEA

Este mes de marzo se han vuelto a realizar observaciones de liebre europea en el entorno de Loza y se han detectado dos mamíferos lagomorfos. Su hábitat más común suele ser el que se encuentra entre la balsa de Loza y el pueblo de Iza. Sin embargo, la foto que se presenta en esta reseña se ha realizado dentro de la propia laguna.

La liebre se caracteriza por sus grandes orejas, negras al final, más grandes que las de los conejos. Además son de tamaño bastante mayor, por lo que no es difícil distinguirlas. Las extremidades posteriores son mucho más musculosas y grandes que las de los conejos, y por ello corren más. La liebre europea es bastante más grande que la ibérica. En Navarra vive en toda la zona media-norte de la comunidad. No construyen madrigueras subterráneas, sino que se "encaman", es decir, se quedan quietas con las orejas hacia atrás y se camuflan con el suelo, por lo que es muy difícil detectarlas. Tienen hábitos nocturnos y son excelentes corredoras.

Generalmente son solitarias aunque en ocasiones se agrupan en las zonas de alimentación, unas vigilan que no vengan los depredadores, mientras las otras se alimentan.

Texto: Ignacio Deán (Sociedad de Ciencias Naturales Gorosti)
Fotografía: Gonzalo Deán


¡Utiliza la sede electrónica!

La sede electrónica es un servicio al que se accede desde la web municipal (www.berrioplano.es) que permite a la ciudadanía y a las empresas acceder en cualquier momento a la información y a los servicios y trámites del Ayuntamiento, con las mismas garantías que si lo hiciera presencialmente pero con el consiguiente ahorro de tiempo.

La sede electrónica está compuesta de cuatro apartados fundamentales: **trámites más frecuentes** (pago de recibos, duplicidad de recibos, consulta de datos catastrales...), **carpeta ciudadana** (mis expedientes, avisos, verificación de documentos, registro electrónico...), **participación ciudadana** (preguntas al alcalde, portal de transparencia), **información de interés** (perfil del contratante, factura electrónica, sistema de acreditación permitidos...) y un quinto de **anuncios oficiales**, en el que se pueden consultar convocatorias y concursos y temas relacionados con urbanismo.

Para realizar algunos de los trámites electrónicos es necesario disponer de un **certificado digital** (firma digital). Si el certificado digital está en un soporte externo (DNI electrónico o tarjeta), deberá insertarlo en el lector. Si el certificado digital se encuentra en un dispositivo o memoria USB deberá introducirlo en la entrada USB de su ordenador.

En caso de no disponer de certificado digital, puede solicitarlo a través de la agencia tributaria (www.agencia tributaria.es), donde le explicarán paso por paso cómo obtenerlo.



Erabili egoitza elektronikoa!

Egoitza elektronikoa izeneko zerbitzuan udal webaren bidez sartzen da (www.berrioplano.es). Zerbitzu horren bidez, herritarrek eta enpresek noiznahi eskuratu dezakete Udalaren informazioa, bai eta udal zerbitzuak eta tramiteak ere, aurrez aurre aritzen direnean dituzten berme berberekin, baina denbora aurreztuta.

Egoitza elektronikoa funtsezko lau atal dira: maizenik egiten diren **tramiteak** (ordainagiriaren ordainketa, ordainagiri bikoiztua, katastro datuen kontsulta, etab.), **herritarren karpeta** (nire espedienteak, oharrak, dokumentuak egiaztatzea, erregistro elektronikoa...), **herritarren partaidetza** (galderak alkateari, gardentasun ataria), **intereseko informazioa** (kontratatuarekin profila, faktura elektronikoa, onartutako akreditazio sistemak...), eta bosgarren atal bat ere, hots, **iragarki ofizialak**, deialdiak, lehiaketak eta hirigintzari lotutako gaiak kontsultatzeko.

Izapide elektronikoa batzuk egiteko, ziurtagiri digital bat izan behar dugu (sinadura digitala). Ziurtagiri digitala, kanpo euskarri batean badago (NAN elektronikoa edo txartela), irakurgailu batean sartu beharko dugu. **Ziurtagiri digitala** USB gailu edo memoria batean badago, zure ordenagailuko USB sarreran sartu beharko dugu.

Ziurtagiri digitalik ez badugu, tributu-agentziaren bidez eska daiteke (www.agencia tributaria.es), eta urratsez urrats azalduko digute nola eskuratu.

